AIAKO HARRIA MENDI MARTXA 2021

COVID-19aren LAUGARREN OLATUAN INDARREAN DAUDEN NEURRI MURRIZTAILEEI EGOKITUTAKO PROTOKOLO ETA ARAUDIA



Arritxulo
Turismo aterpetxea
Reg: BSS00020

Lesaka Bidea Z/G - 20180 Olartzun - 943 58 00 10 - info@arritxulo.org

IZATEAREN ARRAZOIA

Azken urte honetan bizi dugun pandemia eta krisia ondorio lazgarriak eragiten ari da gizartearen esparru gehienetan. Arritxulo aterpetxearen kasuan, ostalaritzak jasan behar izan dituen murrizketa lazgarriak ez-ezik, hartutako neurriek bete-betean eragin diote aterpetxearen sostengarritasunari, Arritxulo bisitatu ohi duten turisten eta bereziki eskola zein udalekuetako taldeen etorrera mugatu eta diru-sarrerak erabat urritu izanagatik.

2020 urte gogorraren ostean, gaitzaren aurkako txertoak eta 2021eko suspertzearen itxaropenak eraginda, buru-belarri lanari ekin diogu bisitariak berriz ere Aiako Harria Parke Naturalera erakartzeko modu berriak bilatuz, eta bide batez Arritxulo aterpetxearen finantza eta ekonomia-egoera sendotzeko.

Asmo horren ondorioz sortu da Aiako Harria Mendi Martxaren ideia, 2021eko maiatzaren 16an antolatzekoa dena, noiz, gaur-gaurkoz, Alarma Egoera indarrean egoterik aurreikusten ez den.

Hala ere, gaixotasunaren transmisioan izaten ari garen etengabeko uhinek eta horien kontra ezartzen ari diren neurri aldakorrek oso zail jarri dute ekitaldiaren gauzatzea hasieran diseinatu modura.

Aiako Harria Mendi Martxa segurtasunez antola dezakegula sinesten dugu guk, eta horregatik ondorengo protokoloa aurkezten dugu, egun indarrean dauden neurrietara egokitua.

MENDI-MARTXAREN EZAUGARRIAK

Parte-hartzaileak

Gehienezko parte-hartzaile kopurua 250era mugatuko da.

Irteera-ordutegiak

Mendi-martxa goizeko 8:30etan abiatuko da. Irteera modu mailakatuan egingo dugu, 2 minuturo 6 pertsonaz osaturiko talde bati irteera emanez.

Mendi-lasterketaren irteera-ordua goizeko 9:30etan izango da, modu mailakatuan hau ere. Kasu honetan, parte-hartzaile kopuru handia dela eta, 6 pertsonako taldeak minutuz behin irtengo dira.


Irteera Arritxuloko aparkalekuan bertan izango da. Taldeen arteko distantzia bermatzeko, aparkalekuko lerroak aprobetxatu eta, lerrook luzatuz, talde bakoitzari bere lekua zein den adieraziko zaio. Lerro eta lerro artean 2 metrotik gorako distantzia egongo da.



1. irudia – TALDEEN IRTEERAREN ADIBIDEA

Ibilbidearen xehetasunak

Hasiera eta bukaera Arritxulo aterpetxean izango da. Ibilbide zirkularra da: Aritxulegiko lepotik GR 121 jarraituko du ibilbideak Arritxulangaña, Bianditzeko lepoa eta Kausorotik pasaz. Behin Kausoko aparkalekuan gaudela PR GI 1006 a hartuko dugu Oianlekutik pasaz. Hemendik PR GI 1007 a hartuko dugu Urmandi leporaino, gero marka txuri berdeak lotura PR GI1008 arte eta hemendik Arritxulo aterpetxera PR GI 1008 jarraituz.



2. irudia – AIAKO HARRIA MENDI MARTXAREN IBILBIDEA

https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/arritxulo-pr-gi-1006-1007-1008-arritxulo-65849819#wp-65849824

Ibilbidea bere osotasunean homologatutako mendi-bideetatik egingo da eta 20 boluntario baino gehiagoren laguntza izango dugu, bide-gurutze eta zenbait lekutan parte-hartzaileek ibilbidea arazorik gabe jarrai dezaten ziurtatzeko. Hori dela eta, Parke Naturalaren araudia errespetatuz, ez dugu bestelako balizajerik erabiliko ezinbestekoa ez den bitartean. Zerbait erabili beharko bagenu, ingurumenaren gaineko eragin txikiena duena izango da eta ekitaldia amaitu bezain laster kentzeko konpromisoa hartzen dugu.

COVID-19 PROTOKOLOA

Segurtasun-distantzia eta higiene-neurriak

Mendi-martxaren egunean, uneoro eskatuko da pertsonen eta taldeen arteko metro eta erdiko segurtasun-distantzia zaintzea, gaixotasunaren transmisioa ekiditeko neurririk eraginkorrena baita. Horrekin batera, eskuak maiz garbitzea eta gainontzeko higiene-neurriak betetzea ezinbestekoa izango da.

Maskara edo musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango da bertaratuko diren pertsona guztientzako: parte-hartzaile, boluntario edota antolatzaile. Maskara aterpetxean bertan eta

inguruan izango da derrigorrezkoa, irteera eta helmuga barne. Parte hartzaileek kendu ahal izango dute soilik aterpetxeko ingurutik kanpo daudenean, probako lehen eta azken metroak maskara jarrita egin beharko dituztelarik.

Mendi-martxan zehar, parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du urruntze soziala bermatzeko betebeharra, jende-pilaketak ekidinez eta, segurtasun-distantzia hori ziurtatu ezin denean, maskara erabiliz. Ibilbidean zehar egongo diren antolakuntzako partaide eta boluntarioek neurri horien betetzea oroitaraziko dute, neurriren bat betetzen ez dela ikusiko balute.


Arren eskatzen diegu parte-hartzaile guztiei erabiliko dituzten maskarak egoera onean egon daitezen, gomendatutako erabilpen denborak bete ditzaten eta eraginkortasuna murriztu dezaketen kalterik eduki ez dezaten.

Aterpetxearen instalazioak

Arritxulo aterpetxean tamaina ezberdineko 6 logela, komun eta dutxak, tailerrak, bideo-gela, kanpatzeko eremua, aparkalekua eta jangela zabal bat aurki daitezke. Jangelaren kasuan, Covid-19ak eragindako murrizketen eraginez, edukiera %50ean murriztu behar izan da, gehienez 60 pertsonarentzako edukiera duelarik gaur-gaurkoz.

Aterpetxera iristea eta sartzea


Ekitaldiaren egunean aterpetxeko aparkalekuan eta bertara iristeko errepidean sor zitezkeen auto-pilaketa eta arazoak ekiditeko, antolakuntzatik dei egiten diegu parte-hartzaileei autoak betetzen saia daitezen, ahal den neurrian auto berean etorriz. Pertsona boluntarioen lanari esker, Arritxuloko aparkalekua antolatu eta aprobetxatuko dugu, baina leku askorik ez dagoenez, parte-hartzaileen laguntza eskatzen dugu probaren egunean ahalik eta auto kopururik txikiena eduki dezagun aterpetxean.



3. irudia – ARRITXULORAKO BIDEA ERGOIEN (OIARTZUN) AUZOTIK


Aterpetxera heldu bezain laster, jangela azpiko bideo-gelan prestatuko dugun bulegotik pasako dira parte-hartzaileak. Dortsala eta hornidura-poltsa jasotzeaz gain, bulegoaren ondoko kontsigna erabili ahal izango dute norberaren gauzak bertan gordez proba egiten duten bitartean.

Jende-pilaketak ekiditeko asmoz, sarrera eta irteera ate desberdinetatik egingo da, norabide bakarreko zirkuitua eginez. Zirkuitu hori bulegotik edo kontsignatik pasa nahi den aldiro egin beharko da, salbuespenik gabe. Irteerako ateak zuzenean probaren irteera eta helmuga-arkuaren ondoan utziko ditu parte hartzaileak.



4. irudia – BULEGOA-KONTSIGNA ZIRKUITUA

Jantokiaren irekiera eta ordutegia unean uneko neurri murriztaileen menpe egongo da. Bazkaria eguerdiko 14:00etarako aurreikusita dago, izen-ematean aukera hori eskatu duten guztientzako.



5. irudia – INSTALAZIOEN KOKAPENA

Positibo kasuetarako jarraibideak

Mendi martxaren egunean, proban zehar edo aterpetxeko egonaldian zehar Covid-19 gaixotasunarekin positibo eman edo gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak atzemanez gero, izan kirolari, antolakuntzako kide edo boluntario, mendi-martxaren arduradunekin harremanetan jarri beharko da. Antolakuntzako kideak izango dira, bertan egongo diren DYA Gipuzkoako langileen agindu eta ikuskaritzapean, pertsona hori bakartzeaz arduratuko direnak.

Mendi martxaren ondorengo egunetan Covid-19 gaixotasunarekin positibo eman edo gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak atzemanez gero, izan kirolari, antolakuntzako kide edo boluntario, ondorengo protokoloa jarraitu beharko da:

1. Positiboaren berri eman:
    a. Gaixoari dagokion Autonomia Erkidegoko Osasun Kontseilaritzari. Egungo egoerarekin, parte-hartzaile guztien jatorria Euskal Autonomia Erkidegoa izan behar denez, bertako Osasun Kontseilaritza izango da erreferentzia.
    b. Aiako Harria Mendi Martxaren antolakuntzari, hauek egunean bertan izan diren arriskuzko egoerak eta hurbileko kontaktuak finka ditzaten Osasun Agintariekin batera.
2. Osasun Ministerioaren edota Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sailaren protokoloak jarraituko dira automatikoki.
3. Aterpetxeko instalazioen desinfekzioari ekingo zaio.

Aipamen garrantzitsuak eta prozedura nagusiak

Proba egin ahal izateko baimena ematea Oiartzungo Udaletxearen eta Erakunde Publikoen esku gelditzen da. Hori ahalbidetzeko asmoz, dokumentu honetan egiten diren proposamen guztiak derrigorrez bete beharreko neurritzat hartu beharko dira.

Parte-hartzaile guztiek ezagutu eta bere gain hartuko dute edozein kirol edo jarduera fisiko praktikatzeak berezkoa duen arriskua gaixotzeari dagokionez, antolatzaileek hori saihesteko neurriak hartuko dituzten arren.

Bulegoa eta Kontsigna

Sartu aurretik pertsona guztiei tenperatura hartu, eskuak gel hidroalkolikoaz garbitu eta uneoro maskara jarrita eraman beharko dute. Dortsala eta hornidura poltsa jasotzea edota kontsignan zerbait utzi zein jasotzeko prozesua segurtasun distantzia mantenduz egingo da beti, antolakuntzako kide eta boluntarioekiko bai eta gainontzeko parte-hartzaileekiko. Bide batez, parte-hartzaileei puntualtasuna eskatzen diegu, irteera behar bezala antolatu ahal izateko.

Irteera

Irteerako taldeak parte-hartzaileen dortsal zenbakien ordenaren arabera osatuko dira. Parte-hartzaile guztiak dagokien irteerako lerroan kokatuko dira, antolakuntzak parte-hartzaile bakoitzari ezarri duen taldearekin batera. Urruntze sozialari dagozkion neurri guztiak betetzeko konpromisoa hartzen dute kirolariek, musukoaren erabileraz gain.

Mendi-martxan zehar

Parte-hartzaileak Arritxuloko eremu itxitik ateratzen direnean, musuko edo maskara kentzeko aukera izango dute. Hala ere, mendi-martxan zehar uneren batean jende-pilaketaren bat sortu eta beraz, ezinezkoa balitz gainontzeko parte-hartzaileekiko metro eta erdiko segurtasun distantzia mantentzea, musukoa jartzea derrigorrezkoa izango da.

Ibilbide osoan zehar, antolakuntzako kide eta boluntarioen argibide eta oharrak bete beharko dira. Boluntario horiek egoera berezien aurrean erabakiak hartzeko ahalmena izango dute, parte-hartzaileren bat zigortu edota probatik kanporatzekoa bezalaxe.

Ez da hornidura gunerik egongo. Parte-hartzaileek eurek beharrezkotzat jotzen dutena eraman dezakete gainean, eta antolakuntzak dortsalarekin batera hornidura-poltsa bat emango die ura eta barra energetikoekin. Erabat debekatua dago zabor, edukiontzi edota edozein hondakin botatzea.

Probaren amaieran, aterpetxeko eremu itxira itzuli aurretik, parte-hartzaile guztiek berriz ere maskara jantzi beharko dute.

Helmuga

Helmuga zeharkatu ostean, boluntarioek argibideak eman eta parte-hartzaile bakoitza bideratuko dute. Bertan utzitakoa jasotzeko kontsignatik pasa behar den parte-hartzaile orok aurrez aipatutako neurri guztiak bete beharko ditu.

Dutxa

Covid-19aren laugarren olatu honetan bizi dugun egoerak bultzatuta, aterpetxeko dutxak ezingo dira erabili.

Bazkaria

Jangelan mahaien kokapena moldatu egingo da pertsona eta taldeen arteko segurtasun distantziak ziurtatu eta gehienezko edukiera betetzeko.

Jangelara sartu aurretik, pertsona guztiei tenperatura hartuko zaie.

Maskararen erabilera eta eskuen garbiketa derrigor bete beharreko neurriak izango dira.

Antolakuntzaren eta boluntarioen bilerak

Mendi-martxaren antolakuntzari begira egingo diren bilera guztietan osasun-agintariek ezarritako neurri guztiak mantentzeko konpromisoa hartzen dugu antolatzaileok.

Jarraian, probaren araudia eransten dugu, hasieran garatutako araudian oinarritua. Aldaketa batzuk egin diren arren, goian azaldutako protokoloarekin alderatuta egon daiteken edozein kontraesanen aurrean, protokolo berrian zehaztutakoa izango da balekoa.

AIAKO HARRIA I. MENDI MARTXAREN ARAUDIA

1. **Artikulua: PROBA ETA ANTOLATZAILEA**
   - Aiako Harria Mendi Martxaren lehenengo ekitaldiaren antolakuntza Arritxulo Mendi Aterpetxeak hartzen du bere gain.
2. **Artikulua: PROBAREN EGUNA, LEKUA ETA ORDUA**
   - Ibilbide neurtua eta mendi-lasterketaren irteera eta helmuga Oiartzungo Arritxulo Mendi Aterpean izango dira, 2021eko maiatzaren 16an (igandea).
   - Ibilbide neurtua goizeko 8:30etan abiatuko da.
   - Mendi-lasterketa goizeko 9:30etan hasiko da.
3. **Artikulua: IBILBIDEA**
   - Ibilbide bera izango da ibilbide neurtua eta mendi-lasterketarentzako, **16km**ko luzera eta **850 metroko** desnibelarekin.
   - Ibilbidea zirkularra izango da, irteera eta helmuga Arritxulo Mendi Aterpean izango dira.
   - Ibilbidearen seinaliztapena:
     - **GR-121** Aritxulegiko lepotik Kausoko aparkalekura.
     - **PR-Gi 1006** Kausoko aparkalekutik Zaldinera.
     - **PR-Gi 1007** Zaldinetik Urmendi lepora.
     - **PR-Gi 1007-1008 lotura** (marka txuri-berdeak) Urmendi lepotik PR-Gi 1008ra.
     - **PR-Gi 1008** loturaren amaieratik Arritxulo Mendi Aterpera.
4. **Artikulua: IZEN-EMATEA**
   - Izen ematea www.kronoak.com web atariaren bidez egingo da, 2021eko martxoaren 29tik maiatzaren 4ra bitarte. Egunean bertan izena emateko aukerarik ez da emango.
   - Izena emateko orduan parte hartu nahi den modalitatea aukeratu beharko da:
     - Ibilbide neurtua.
     - Mendi-lasterketa.
   - Izen-ematearen prezioak honakoak izango dira:
     - Izen-emate orokorra: Dortsala txiparekin, asegurua, kamiseta eta hornidura poltsa **25€**.
     - Izen-emate orokorra eta bazkaria Arritxulo Mendi Aterpean **40€**.
   - Gutxieneko parte-hartzaile kopurura (60 pertsona) iritsi ezean, Mendi Martxa bertan behera geldituko da, une horretara arte izena eman dutenei ordaindutakoa itzuliz.
   - Gehienezko parte-hartzaile kopurua 250 pertsonakoa izango da. Hortik aurrera ez da izena emateko aukerarik egongo.
   - Behin izena emanda, proban parte ez hartzea erabakitzen duenari ez zaio dirurik itzuliko.
5. **Artikulua: PARTE-HARTZAILEENTZAKO SEGURTASUN NEURRIAK**
   - Aurrez ezarritako edukiera kontrolatu eta probaz kanpoko inork parte hartu ez dezan, ezinbesteko jo dugu dortsal eta txiparen erabilera, dortsal bakoitza izen-abizen zehatz bati lotua egongo zaiolarik.
6. **Artikulua: KONTROL ETA HORNIDURA PUNTUAK**

- Ibilbidean ez da kontrol edota hornidura punturik egongo. Parte-hartzaileek bere gain hartzen dute ibilbidea bere osotasunean egiteko konpromisoa eta irteeran emango zaio poltsa baten barruan hornidura.

7. Artikulua: OPARIAK

- Ibilbide neurtuan, opari bat jasoko du antolakuntzak jarritako denbora egitetik gertuen gelditzen den parte-hartzaileak. Denbora hori zein den ez dute jakingo parte-hartzaileek martxa amaitu bitartean.
- Mendi-lasterketan, ibilbidea denborarik gutxienean egiten duen lasterkariak jasoko du oparia.
- Opariak ohiko posta zerbitzuaren bitartez bidaliko dira probaren hurrengo egunetan.

8. Artikulua: DORTSALEN BANAKETA

- Dortsalak aldez aurretik jaso ahal izango dira Arritxulo Mendi Aterpean, maiatzak 14tik aurrera. Antolakuntzatik dortsala maiatzak 14 edo 15ean jasotzea gomendatzen dugu.
- Dortsala aldez aurretik jasotzerik ez duenak, egunean bertan jaso beharko du 7:30tatik 8:15etara.

9. Artikulua: INGURUGIROA ETA ZABORRA BOTATZEA

- Mendi Martxa Aiako Harria Parke Naturalean egingo da bere osotasunean, horregatik guztiz debekatua dago zaborra botatzea, edozein dela ere. Mendi martxaren helburuetako bat natur ingurura hurbiltzea baldin bada, ingurugiroari zor zaion begiruneaz jokatu beharko dute parte-hartzaile guztiek, zabor eta hondakinak eurekin eramanez helmuga puntura arte.

10. Artikulua: ASEGURUA

- Izena emateарekin batera, eguneko asegurua izango dute parte-hartzaileek.

11. Artikulua: APARKALEKUA

- Arritxulo Mendi Aterpean aparkaleku mugatua dago autoz iritsi nahi dutenentzako. Ahal den neurrian, auto berean etortzeko eskaera errepikatzen dugu.

12. Artikulua: ATERPETXEAN DUTXATZEA

- Egungo neurri murriztaileen ondorioz, ezingo da aterpetxean dutxatu.

13. Artikulua: ATERPETXEAN BAZKALTZEA

- Arritxulo Mendi Aterpean bazkaltzeko aukera izen-ematean bertan eskainiko da. Parte hartzen ez dutenek ere aukera izango dute bertan bazkaltzeko, aldez aurretik hala eskatuta. Menuaren prezioa **16€**-koa da.

14. Artikulua: COVID-19 ETA NEURRI BEREZIAK

- Pandemiako testuinguru honetan, une bakoitzean indarrean dauden neurri eta murrizketak aurreikustea zaila den arren, antolakuntzak gutxieneko neurri batzuk ezarriko ditu. Hala ere, egoeraren arabera, aldaketak izan daitezke.
- Dortsala jasotzeko, taldeen arteko distantziak errespetatu beharko dira, baita higiene eta desinfekziorako gainontzeko neurriak ere.
- Mendi-martxan zehar, taldeen gehienezko kide kopurua, eta gainontzeko taldeekiko distantziak zaindu beharko dira.
- Musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango da aterpetxe barruan eta jende pilaketak saihestea ezinezkoa den edozein unetan.
- Guztion betebeharra izango da arauak zorrotz betetzea pilaketak eta transmisioak saihesteko.

15. **Artikulua: DORTSALIK GABE PARTE-HARTZEA**
    - Ezingo da mendi martxan parte hartu izena eman gabe. Dortsalik ez duten pertsona guztiak mendi martxatik kanpo daudela ulertuko da.
16. **Artikulua: ANIMALIEKIN PARTE-HARTZEA**
    - Animaliekin parte hartzea baimenduko da beti ere mendiko araudiak betez.